

www.noaia.com

Noaia!!!



Pirritx eta Porrotx,
larunbatean frontoian



Urriaren 12an,
Euskal Jaia Zubietan

Errausketaren egiak:

ERRAUSKETARIK EZ
LURRIA BASEERRIA HERRIA
BIZIRIK

- Berrerabil daitezken gaiak erretzen dira.
- Birzikla daitezken gaiak erretzen dira.
- Konpostatu eta ongarri bihurtu daitezken gaiak erretzen dira.
- Osasunean eta ingurugiroan kalteak sortzen dira.
- Elikagaien bidez sartzen dira Dioxinak gorputzean. Beraz, erraustegiaren inguruan sortutako elikagaiak (arraultzak, sagarrak, barazkiak, haragia, esnea eta abar) inork ez ditu erosi nahiko.
- Errausketak sortutako gai toxikoak ez dira etengabe kontrolatzen.
- Errausketak sortutako gai toxikoentzat zaborteegi berriak beharrezkoak dira.
- Ekoitzitako indar elektrikoak daukan balioa, kostua baino baxuagoa da.
- Errausketa sistema ikaragarri garestia da.

Osasun-tekniko batzordea




**antenas
Telemar**

175 egun falta dira!!!

t d t

elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
antenas-telemar@terra.es



**GONZALEZ
EHORZTETXEA**
munalurra 8 Usurbil



30. URTEURRENA

- Gonzalez Ehorztetxeak 30 urtetan Usurbildarrek guregan izandako konfidantza eskertu nahi du:
- Segururik ez duten familientzat Usurbilgo tanatorioa **DOAN** izango da, gure ehorztetxearen eskutik.
 - Seguru dutenak eta **ZUZENEAN** Gonzalez ehorztetxeari deitzen duten familientzat **BONIFIKAZIO** bat izango dute zerbitzuan.

**24 ORDU, BELATOKI GUZTIAK, SEGURU GUZTIAK,
ERRAUSKETAK, LEKUALDAKETAK, EGOITZETAN...**

943 36 21 63 - 660 388 652 - 608 167 792

Albistea iruditan !!

Babarruna biltzeko garaia

Udazkenetik gutxi izan du eguraldiak azken asteotan. Udarakoaren segida ederra izan da. Baina nabaritzen hasiak dira udazken koloreak; eguna laburtzen hasi da; hego haizea ere ibili da aste honetan...

Uzta jasotzeko garaia izaten da udazkena. Artoa, sagarrak, udareak, gaztainak, mahatsak, urrak, intxaurrak, garoak edota babarrunak.

Zubietan, hego haizea aprobetxatuz, babarrun landareak lehortzen jarri zituzten aurreko igandean. Babarruna aletzen lanak izango dituzte laster.

Enrike Abril Errebote Txapelketaren finalean, behintzat, argazki ederra ateratzeko aukera eskaini zigun Prostuetxe baserriak.



PROSTUETXE BASERRIAREN ATARIA, AURREKO IGANDE EGUERDIAN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

ERRAUSTEGIAREN ORDEZ, ZUHAITZAK **9. OR.**

HERRI ANTZERKIA, IGANDEAN AGINAGAN **11. OR.**

EUSKAL JAIA ZUBIETAN **12. OR.**




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789



JOXE PIÑAS

Honduraseko estatu kolpea

Pasa den abenduan Hondurasen lanean dabilen lankide batekin elkartu nintzen eta hango historia eta prozesu sozialari buruz ezer askorik ez nekiela aitortu nion. Ekainean lankide honek Hondurasetik idatzi zidan esanez: "hemen prozesu oso interesgarriak gertatzen ari direla esaten nizun ba".

Ekainaren 28an, Honduraseko herritarrek herri-galdeketa baten bidez, azaroko hauteskundeetan "4. hauteskontzia" jartzearen alde edo kontra bozkatu behar zuten. Baiezkoa aterako balitz, azaroko hauteskunde orokorretan, 4. hauteskontzi honetan, Konstituzioa aldatu nahi zuten edo ez bozkatu beharko zuten. Eta berriro baiezkoa aterako balitz, Batzorde Konstituziogile Nazionala eratu beharko zuten.

Baina ekainaren 28an Honduraseko herria estatu-kolpearekin esnatu zen. Ejertzitoak Zelaya presidente konstituzionalaren etxean sartu, bahitu eta Kosta Rikara erbesteratu zuten.

Zelayak 2005. urtean Alderdi Liberala kontserbadorearekin hauteskundeak irabazi zituen baina bere nazioarteko politikan eta Amerikako Estatu Batuetako presioen gaintik, Venezuelaruntz gerturatzen ari zelako alderdikideen konfiantza galtzen joan zen. Kasu honetan afiliazio politikoak baino ekonomiko-sozialak daukela esango nuke: alde batetik Venezuelak bere petroleoa saltzeko ematen dituen erraztasunak ezagutu, Zelayak herritarren beharrak asetzeko aukera ikusi zuen eta beste aldetik, Honduraseko oligarkia tradizionalak denbora luzean Amerikako Estatu Batuekin izan dituen pribilegioak galtzorian ikusi zituen.

Ondoren, Alderdi Liberaleko kide den Michelettik, presidentetza hartu du. Harrez gero, giza eskubideen urraketak inposatu ditu. Eta udan zehar hainbeste etxeratze agindu ezarri eta gero, irailaren 26an setio egoera inposatu du eta 45 egunez hainbat askatasun bertan behera utzi ditu, besteak beste: biltzekoa, presoen oinarriko eskubideak, askatasunez mugitzekoa eta adieraztekoa. Honez gain, epaileen agindurik gabe armadak susmagarritzat jotzen badu, edonor atxilotu ahal izango du.

Azkenean, pasa den irailaren 21ean, Zelayak Honduraseko lurraldean sartzea lortu zuen (oinez eta menditik) eta Brasilek herrialde horretan duen enbaxadan babes hartzea lortu zuen. Geroztik, armadak hura ere inguratuta dauka.

Estatu kolpetik pasa diren ehun egun hauetan, Honduraseko herritarrak erresistentzian nola mantentzen ari diren aipagarria iruditzen zait: egunero manifestaldiak egin dituzte eta modu bake-tsuan aurre egiten diete errepresioari eta probokazioei, demokrazia ordena berriro ezarri dadin.

Bertako lankideek esaten diguten bezala: "Zenbait lagun hil dira, beste asko zaurituta daude, ehunka eta ehunka bidegabeke-riaz atxilotu dituzte eta ez dakigu zenbat desagertu diren. Besterik gertatu behar ote da herri honen eskariari erantzuteko eta benetako demokrazia ezartzeko".

Pasa den irailaren 11n Txileko estatu kolpearen 36. urteurrena bete zen. Mingarria da oraindik ere, XXI. mendean, historiako hainbeste pasaje ilun errepikatzen direla ikustea.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika !!

Usurbilgo Eusko Alkartasuna bizirik!!

Pasa den irailaren 18an Eusko Alkartasuna utzi duten Usurbilgo kideek eskutitz bat argitaratu zuten NOAUAN. Bertan, alderdia uztearen arrazoiak azaltzen zituzten. Ordea, arrazoi horiek azaltzeaz gain, Usurbilgo Eusko Alkartasuna desagertu egin dela esaten zuten. Eta hori gezurtatu egin behar dugu Usurbilgo EAKo kideok. Udal taldea osatzen zuten EAKo hiru kideek eta afiliatu talde batek utzi du alderdia baina Usurbilgo EAKo kideok herriaren alde lanean jarraitzeko, ehunka herritarren babesak ematen digun indarra eta borondatearekin egingo dugu aurrera.

Goazen bada gauzak bere tokian jartze- ra. Ezker abertzalearekin bat egitea leporatzen digute. Hau ere gezurtatu beharrean aurkitzen gara. Gauza jakina da EAK alderdi abertzaleen arteko elkarlanaren

alde egin duela, orain 23 urte sortu zene- tik. Lizarra-Garaziko prozesua dugu horren adibide. Autodeterminazio esku- bidea eta biolentzia adierazpen guztien gaitzespena izan ziren prozesu haren zuta- beak. Ondoren prozesu hark huts eginda, 2001etik 2008ko martxorarte, bi zutabe horiek defendatu ditugu Ibarretxe buru izan duten bi legegilditan. 2007ko bukaer- ran garbi ikusi zen bezala ordea, PNVk kontsultaren debekuaren aurrean men egin zuen, estatuaren manatuaren aurrean obediencia zintzoa erakutsi eta ildo auto- nomista nahiago dutenen nagusitasuna gailenduz alderdi jeltzalean.

Testuinguru horretan, EAK, ekaineko azken kongresuan hartutako erabakien arabera, tinko jarraituko du alderdi abertzaleen arteko estrategia bateratu baten alde lanean, beti defendatu izan

dituen baldintzak errespetatuz; giza eskubide guztien defentsarekiko kon- promisoa, autodeterminazioa eta gizarte justuago baten defentsa. Horretarako, alderdi guztiakin hitz egin du EAK eta hitz egiten jarraituko du aurrerantzean ere, baina garbi utziz ez duela baldintza hauek onartzen ez dituen inongo alder- direkin bat egingo.

Carlos Garaikotxeak sortutako alder- diak hasiera hasieratik bere bereak dituen balore eta ideien alde jarraituko du lanean Usurbilen. Giza eskubideak, independentzia, sozialdemokrazia eta instituzioetan parte hartze arduratsua bultzatuz, eta usurbildarron arazo eta beharrei ahalik eta modu egokienean erantzunez.

Usurbilgo Eusko Alkartasuna

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAU!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAU!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: urriak 16. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 12.

Haur Eskolako tasak ez dira igoko

Haur Eskolaren hezkuntza zerbitzuko tasak bere horretan uztea proposatu zen azken udalbatza plenoan. Halere, bada berrikuntzarik, guraso eta haurren beharretara egokituko litzatekeen zerbitzu eskaintza zabaltzea erabaki baita.

Hala, orain arteko egun erdi zein osoko eta janari zerbitzuari, merienda edota 0-6 hilabete arteko haurrei biberoi zerbitzuak erantsi zaizkie. Beti bezala, bi tarifa mota finkatuko dira 2010. urterako. Usurbilen errol-datuta dauden haurren eta errol-datuta ez daudenen arteko tarifa ezberdina izango da.



ZERBITZU BERRIAK ESKAINIKO DITU HAUR
ESKOLAK. MERIENDA EDD 0-6 HILABETE
ARTEKO HAURREI BIBEROIA EMATEA.

Udalak EAE-ANV taldea desegiteko autoa jaso du

Autoaren arabera, EAE-ANV Alderdiaren izenean 2007. urtean aurkeztu ziren udal hautesiak atxikitu gabeko kideak ("miembros no adscritos" delakoa) izatera igaroko lirateke. Era berean, udal talde gisa EAE-ANVri zegokion diru-kopuruaren etetea eskatzen du autoak.

Alkarbide gisa izendatzea eskatu dute

Herritarren borondatea hobeto islatua egongo delakoan, pasa den irailaren 30eko plenoan, EAKo hiru udal ordezkariak Alkarbide udal talde gisa izendatzea eskatu zuen Luis Mari Ormaetxea zinegotziak.

Ika-mika !!

Eusko Jaurlaritzak ez du aintzat hartzen herritarren iritzia

Legebiltzarrean duela hiru hilabete Laurkeztutako Hondakinen Euskal Lege Proposamenaren inguruan, hau kontuan ez hartzeko, Jaurlaritzaren iritzia berri izan ondoren, Errausketaren Aurkako Plataformen Koordinadorak zehaztapen hauek egin nahi ditu:

1. Jaurlaritzak ez du aintzat hartu nahi 35.000 herritar sinatzaileek diotena, non agertzen den errausketarik gabeko Hondakinen Lege baterako borondatea.

2. Jaurlaritzak legebiltzarkideen bozka baldintzatu nahi du, hauek baitira (eta ez Jaurlaritza) Lege Proposamena kontuan hartu ala ez erabaki behar dutenak.

3. Eusko Jaurlaritzak (alderdi sozialista) ez du egia esaten, hondakinen kompeten-

tziak Aldundiei, Udalei eta Jaurlaritza berari banatzen dizkienean. Badakite lege hutsunea dagoela eta erakunde bakoitzak nahi edo ahal duena egiten duela: Gipuzkoako Aldundiak errausketa eta bere inguruko negozioak bultzatu; Usurbil, Hernani, Oiartzun, Lasarte... Udalek atez ateko bilketa defendatu, hau delakoan hondakinak kudeatzeko modurik osasuntsuena, jasangarriena, merkeena eta ingurugiroan eragin gutxi duena.

4. Ze beldur diote erakunde guztien jarduera berdintasunean arautuko duen Legea onartzeari? Agian bakoitzaren negozioaren aukera amaituko dela? Ze interes ekonomiko dago erraustegiaren eraikuntzaren atzean? Zergatik ez dute

pentzaten herritarren osasunean? Osasun adituen hainbat ikerketek diote errauskailuek eragin negatiboa dutela osasunaren gainean.

5. Nondik aterako dira errausategia egiteko behar diren 400 milioi euroak? Zenbateraino igo beharko digute zaborraren tasa? Ez al daude, bada, Udalak krisian? Edo Aldundia zorpetuko al da batzuen burutazioak betetzeko?

6. Jaurlaritzak bere erabakiekin eztabaida lapur diezaguke, baina badakigu arrazoi dugula eta agerian uzten ari gara. Gaur inoiz baino ozenago: Errausketarik ez.

Errausketaren Aurkako
Gipuzkoako Plataformen Koordinadora

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 - 943 370 344

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

URDAINTZI S.L.
eraikuntza

540 30 264
640 30 264
640 30 264

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olandegia - Gozotegia

LABE-GOXO

TXOKOALDE

KOLDO HUEGUN

Salmenta zuzena



Furgoneta hartu, Irungo peajea pasa eta bagoaz Iparralderutz. Donibane Lohizune, Bidarte, Angelu, A-63a utzi eta A-64 hartu dugu segidan baina, oraingoa ez goaz Pirinioetara.

Donapaleun geldialditxo bat egin eta ekialderuntz jarraitzen du gure bidaiak, Euskal Herriko azken mugan dagoen Ezkiula herri dugu helburu. Ezkiulan Maritxu eta Henriren etxaldez galdetu dugu.

Bikote interesgarria, biak laborariak, haragitarako txekor eta behiak, zein ardi eta bildotsak hazten dituztenak. Hona arte dena normaltzat jo liteke baina, salerosketarako moduak erakarri gaitu.

Abereak gizendu ondoren harakin bati saldu ordez, zuzenean kontsumitzaileari saltzen diote beraien produktua. Horretarako bost eta hamar kiloko paketeak egiten dituzte, kalitate ezberdinetako haragi zatiak tartekatuz eta ahal den kutxa berdintsuenak eginez. Bezeroak aurretik ordaintzen du kutxaren balioa, eta Maritxurekin adostutako lekuan eta orduan jasotzen du bere kaxa edo kutxa.

Mota guztietako bezeroak ditu, bikoteak, familia handiak, bakarkakoak eta hemen oraindik oso gutxi hedatuak dauden kontsumitzaile elkarteak.

Badirudi mugaren alde honetako baserritarrontzat utopia dela eta funtzionatzeko era honek oso jende gutxirentzako irtenbidea dela pentsarazten digula. Beraien esperientziak ordea burutzazio hau baztertuarazi digu.

250 ekoizle baino gehiago dira Aquitanian salmenta zuzenaren hautua egin dutenak. Maritxu eta Henriren kasuan 22 txekor, 4 behi eta 150 arkume 2008 urtean. Berondeizuela!

Bisita hau Biolur eta Idokiren (Euskal Herriko Etxe Ekoizleen Elkarte) artean antolatutako elkarlan proiektuaren barne kokatzen da. Badugu nondik hasi.



KALEBERRI

IRATI PORTU

Obrak, zarata eta hautsa



Hauxe da Munalurra inguruko biztanleok azken hilabeteotan buruan jiraka eta bueltaka darabilguna: obrak, zarata eta hautsa. Dagoeneko urrunekoa dirudi obra hasi zeneko egunak eta baita amaituko denak ere.

Aspaldian Munalurra inguruan ibili ez zarenok agian ez duzue jakingo, baina urbanizazio guztia altxa eta berritzen ari dira. Lanak gutxi gorabehera duela bi hilabete inguru hasi ziren eta urtearen amaierarako bukatuko omen dira. Gehienok dagoeneko kokoteraino gaude obrarekin. Normala da, inori ez zaigu gustatzen egun osoan zehar zarata entzun beharra, aparkaleku gutxiago edukitzea eta kale guztia hautsez beteta egotea, baina beharrezkoa da urbanizazio berri polit bat nahi badugu. Egia esan, hodiren bat hautsi eta sustoren bat edo beste eman diguten arren lan txukuna ari dira egiten.

Pazientzia apur bat beharko dugula jakina da, baina auzoa polita geratuko den esperantza daukat. Orduan ahaztuko zaizkigu gaurko zaratak eta hautsak.

ATXEGALDE

ARITZ GORRITI

Kea eta usaina

Aspaldian ez genuen ke desatsegin eta Asusmagarri hau sumatzen. Bolada batean, askotan izaten genuen leihoa itxi beharra, etxea kez betetzea nahi ez bagenuen baina, bazirudien auzotarrek jarritako kexak entzun ondoren arazoa konponbidean zela. Uzineko tximiniatik ateratzen den keaz ari naiz.

Esan bezala, auzotarrok eta herritar guztiok ezaguna dugu kea eta usaina baina, bazirudien lantegian egindako berritze lanek eta auzoan egindako kutsadura neurketek arazoa konpondu zutela. Ba ez! Aste honetan berriz ere nabaria zen auzoan genuen kea eta usaina. Berriz ere etxeetako leihoak itxi behar izan ditugu.

Badirudi, Usurbilen azken hilabete hauetan herritar guztiak gaudela kezkatuta osasunaz eta ingurumenaz eta harro egoteko ekimenak jarri ditugu martxan, atez ateko zabor bilketa adibidez, baina garrantzitsua da herrian ditugun lantegiak isurtzen dituzten keak kontrolatzea ere. Gure osasuna dago jokoan eta badago zer egina.



KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

Laster arte Kalexarko mojei



Nork ez du ezagutzen Kalexarko konbentua? Jakin, denok jakingo dugu non dagoen baina nahiz eta duela 105 bat urte Kalexarren izan ditugun "Sagrada Familia de Burdeos"eko mojak, gure generaziokoak garenok ezer gutxi dakigu moja hauek direnaz eta izan direnaz. Gure helduek aldiz ziur badutela istorio edota anekdota ugari beraiekin.

Moja hauek lehenengo Burdeosetik Elgoibarrera etorri omen ziren, Frantziar Iraultza medio, eta ondoren etorri omen ziren gurera, 1905 urte inguruan, Casa Miravalles delakora. Pixkanaka pixkanaka moja gehiago etortzen joan ziren eta etxea txiki gelditu zitzaizenean alboetako edifizioak egin zituzten, gerora, horietako bat, Gizakia Helburu taldeak erabili duena.

Paretaren bestaldean, baratz, Lurdesko Ama Birjinari eginiko txoko bat lorategiaren amaieran (haur izanik joaten ginen tarteka txoko honetara belauniko jarri eta auskalo zertan pentsatzera), kapilatxo bat, enfermeritza, beraien hilerria... zituzten. Behin hemen finkatuak iza-

nik, gaur haurtzaindegia eta eguneko zentroa, eta aurretik Udaregi Ikastola zegoen eraikina egin eta emakumeentzako ikastetxea sortu zuten. Ordurarte, gaizki ulertua ez badut behinik behin, Maritxu zenak burutzen omen zituen irakasle lanak. Hau jubilatzean berriz, denak mojetara pasa ziren Sor Madalena, Sor Asunción, Sor Irene, Sor Eugenia eta beste hainbatekin laboreak, frantsesa eta garaikoak ziren beste gaiak ikastera. Gurean diotenez, oso zorrotzak omen ziren moja hauek baina ongi prestatuak ateratzen omen ziren bertatik pasatakoak.

Urteetan mugimendu handia izan bazuen ere konbentu honek, azken aldian erretiroko etxe gisa egon da eta azken urte honetan zehazki 17 moja egon dira bertan. Orain aldiz, Matia Fundazioa zaharren egoitza edo erresidentzia jartzera doa eta ondorioz mojak, aldi baterako bada ere, hemendik badoaz eurentzat etxetxoak egiten den bitartean. Ondoren itzultzeko aukera izango omen dute. Agur gisa, azken meza datorren larunbatean, hilaren 10ean izango da konbentu bertako kapilatxoan.

Laster arte bada mojei eta bide batez gainontzekoei.

AGINAGA

AITOR HELETA

Festetan murgilduta



Astebukaera izugarria pasa dugu San Praixku jaietan, eguraldiak lagunduta, eta hau hasiera besterik ez da izan. Ostegunean eta ostiralean pilotalekua gainezka egon zen bai pala eta eskuko finala ikusteko, larunbatean niretzako aipagarriena San Praixkutako trainerila bandera, zortzi partehartzaileen artean Aginaga bigarrena gelditu zen, 9 segundutara Kaikuren atzetik. Aurten ez da posible izan, ea hurrengo urtean lortzen dugun.

Igandean oso lehia polita izan zen herri kiroletan eta oraingo honetan ere ez zen lortu, oriotarrek irabazi zuten.

Hurrengo astebukaeran, ostiralean haurren eguna, beste ekintza batzuen artean Txan Magoa etorririko da, larunbatean mus txapelketa eta puntako bertso saioa, Amets Arzallus, Iker Zubeldia, Angel Mari Peñagarikano eta Iosu Oiartzabalekin eta bukatzeko igandean herri bazkaria eta arratsaldean herri antzerkia.

Besterik gabe ondo pasa eta eskerrik asko Jai Batzordekoiei egiten duten lan guztiagatik.

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Krisia?

Agintariak barkatuko ahal didate atrebentzia baina... Ekonomiaz eta arrazionalizazio produktiboaz karreraren irakatsi zidatenekin bat ez datoz krisi garai hauetan Zubietan ikusi ditudan kontu pare bat eta galderak dakarzikizuet, ea inork taxuzko erantzunik ematen didan...

Bat: Eusko Jaurlaritzaren berria mendiko erreskateetara bidalitako helikopteroen izugarritzako kostua kobratzen hastekotan omen da; orduan azkenaldian zertan dabilta inoiz baino helikoptero gehiago Zubietan gainean?

Bi: Foru Aldundiak dio gero eta gehiago konpostatu nahi duela, erraustegira ahalik eta gutxien botatzeko. Zerga-bilketatik diru kopurua ere laurden bat jaitsi omen da eta kostuak zorrotz murriztu nahi omen dituzte. Baina Andatza katen bidez txikitzeko dirurik ez da falta, itxuraz. Ingurumen arazoez haratago, kontsumismoak goia jo omen duenean, hondakinak gutxitzea goazenean, atez ateko sistema merkearen arrakasta ikusi dugunean, Europak erraustegiak ixteko joera duenean... zein astakirtenek jarraitu nahi du erraustegiaren "inbertsioarekin"?

Hitzetik hortzera dabiltzan EREak eta langile-kaleratzeak ez balira, krisiaren arrastorik ez...



Aurten 80 urte bete dituztenak omendu ditu Gure Pakea elkarteak



PASA DEN IGANDEAN, GURE PAKEA ELKARTEKOK ATXEGA JAUREGIAN BILDU ZIREN. BAZKARI BATEN BIDEZ, AURTEN 80 URTE BETE DITUZTEN HERRITARRAK OMENDU ZITUZTEN. URTERO ERREPİKATZEN DEN OSPAKIZUNA DA. ARGAZKIAN IKUSTEN DEN MODUAN, ORDIGARRI BANA ETXERATU ZUTEN OMENDUTAKOEK.

27 lan, Mikel Laboaren omenezko eskultura lehiaketan

Maiatzaren 31n Usurbilgo herriak omenaldi hunkigarria egin zion Mikel Laboari. Omenaldiarekin batera, Mikel Labo plazan eskultura jartzeko lehiaketa deialdia egin zen.

Lehiaketara aurkezteko epea irailaren 30ean amaitu zen. Lehiaketak erantzun bikaina izan du, izan ere, guztira 27 proposamen aurkeztu baitira.

Orain, epaimahaiari lanik onena zein den erabakitzea dagokio.



MIKEL LABOARI MAIATZEAN
EGINDAKO OMENALDIA.

25. urteurrenean, logotipo berri bat nahi du Zumartek

Ba al da marrazkilari treberik Musika Eskolako ikasleen artean? Galdera hori bota dute Zumarte Musika Eskolakoei. 25. urteurrena dela eta, logotipo lehiaketa antolatu dute. Eskolako ikasleen arteko lehiaketan parte hartzeko epea urriaren 23an amaituko da.

Betebeharreko baldintzak

- "Zumarte Musika Eskola 25 urte" testua agertu behar du.
- Parte hartzeko Musika Eskolan matrikulatuta egon behar da.
- Saria: hurrengo urteko matrikula eta hileko kuotak doan.
- Epea: urriak 23 (egun hau barne).
- Non entregatu: lan originalak sobre baten barruan sartuta Zumarteko bulegoan entregatuko dira astearte, ostegun edo ostiral arratsaldean.

Informazio gehiagorako: 943 371 594.



IRUDIAN, ORAIN ARTEKO
LOGOTIPOA. BERRIA EGITEKO
LEHIAKETA JARRI DA MARTXAN.

Enrique Alonso
ITURGINTZA-GASA-BEROKUNTZA
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA
659 675 283
Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta
tximinien azterketa

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

Erraustegiaren ordeez, haritzak

Katarik ez, Espropiaziorik ez edota Erraustegirik ez leloekin hainbat pintada, hainbat kartel ikus daitezke Zubieta inguruan. Errauste-planta eraiki nahi duten tokian, zundaketa lanak hasi dituzte. Hori salatzeko, protestaldia egin zuten pasa den larunbatean 50 lagunek. Zundaketak egiten ari diren tokiraino iritsi ziren, pankartak zabaldu eta haritzak landatu zituzten.

Ekimen honen sustatzaileek, "Gipuzkoako gizarteari dei egiten diegu astakeria honen kontra altxa daitezen, eta antolatzen diren ekintza guztietan parte har dezaten, orain baita garaia, guztion osasunarentzat kaltegarria izango litzatekeen erraustegia eta hau bultzatzen dutenak geldiarazteko. Atez ateko bilketarekin frogatuta gelditzen da errauskailuarena beharrezkoa ez den obra garestia dela".



ZUBIETAN, ERRAUSTE-PLANTA ERAIKI NAHI DUTEN TOKIAN, ZUHAITZAK LANDATU ZITUZTEN ETA ERRAUSTEGIAREN AURKAKO MEZUA ZABALDU ZUTEN.

Euren lanpostuen defentsan jarraitzen dute Ingemarreko langileek

Azken aste hauetan, lantegi atarian ikusi ditugu Ingemarreko langileak. Albiste onak noiz iritsiko zain. Bien bitartean, denbora nola edo hala pasa behar. Jolasean, tertulian... Eta mobilizazioetan. Pasa den larunbatean, manifestazioan ibili ziren.

Ingemar lantegikoek greba mugagabea hasi zuten irailaren 25ean. Enpresako zuzendaritza eta langile-komitearen arteko negoziazioak hasiak zeuden baina ez da aurrerapausorik eman (ez behintzat, ale honen edizioa amaitzeko unean).

Gogoan izan 20 langile kaleratu zituztela udan. Negoziazioa eskatu eta kalera-tzeak salatzeko, manifestazioa egin zuten pasa den larunbatean. Lasarte-Oriako Zumaburu auzotik abiatu ziren eta herrirako bidea N 634 errepidetik egin zuten, trafikoa oztopatuz.



MOBILIZAZIOETAN JARRAITZEN DUTE INGEMARREKO LANGILEEK. AURREKO LARUNBATEKO MANIFESTAZIOAN, TRAFIKOAREN MARTXA ETEN EGIN ZUTEN.

Pilota festa San Praixkutan

San Praixkutako lehen asteburuan argitu dira pala zein pilota txapelketako irabazleen izenak. Palan, Imanol Esnaola eta Xabier Errasti izan ziren onenak finalen. Pilota Txapelketan, Gorka Mendizabal eta Markel Galarragak irabazi zuten gazte mailako finala eta Xabier Santxo-Landa bikoteak, nagusien finala.

Aginagako Pilota Txapelketa Gazteak

Gorka Mendizabal-Markel Galarraga 22
Iban Arruti - Julen Gesalaga 13

Nagusiak

Xabier Santxo - Landa 22
Lertxundi - Aranalde 15



IMANOL ESNAOLA ETA XABIER ERRASTI NAGUSITU ZIREN
AGINAGAKO PALA TXAPELKETAN.

URRIAK 18, 17:30
SUTEGIN
*Sarrera: aurretik 1€ (Noaua!ko egoitzan)
eta egunean bertan 2€ (takilan)*

Kanpanila

eta Peter Panen itzala

Noaua!
www.noaua.com

Urdagoitien

Herri bazkarian, herri antzerkia

Herri bazkaria ohikoa da San Praixku jaietan. Aurten, ordea, izango da nobedaderik. Bertako gazte batzuen ekimenez, antzerki batekin girotuko dutelako bazkalostea. Txerriki Gazte Koadrilakoekin batera, barre algarak eragingo dituen antzezlanari ari dira prestatzen.

Urriaren 2a ostirala. Arratsaldeko 19:30ak Aginagan. Frontoian, palan jokatzeko ari dira, Mikel Unanue tartearen da, pilotari profesional izandakoa.

Odolaren Mintzoa taldekoak, berriz, Eliza Zaharreen ari dira euren trasteak sartzen. Gaueko kontzertuaren prestaketa lanak hasiak dira Eliza Zaharreen.

Arrate egoitzan, jada zabalik, jendea tragoxka bat hartzen ari da.

Parkean umeak jolasean, gurasoen begiradapean; eta bien bitartean, ludotekan, Josu Ostolaza eta Ander Izeta, herri antzerkian parte hartuko duten bi antzezle, gainontzeko kideen zain.

Txerrikiko gazteekin batera

Txerriki Gazte Koadrilakoak topatuko dituzte herri antzerkiko saioan. Leire Iturrioz, Jon Etxabe eta Ander Izeta. Hauekin batera, besteak beste, Aritz Aranburu eta Josu Ostolaza aginagarriak.



LEIRE ITURRIOZ, JON ETXABE, ANDER IZETA, ARITZ ARANBURU ETA JOSU OSTOLAZA, AGINAGAKO LUDOTEKAN, ENTSEGUA HASI AURRETIK.

Aritz Aranburuk azaldu digunez, “duela aste batzuk hasi ginen antzerkia prestatzen”.

Bi zati izango ditu atzezlanak

Euren ekimena izan zela ere aitortu digu, “herri bazkarian, jendea animatzeko” okurritu zitzaizela herri antzerkiaren ideia.

Ez dituzte xehetasun asko eman nahi. Sorpresa modukoa izatea nahi

dute. Kostata baina, Ander Izetak esan digunez, “bi zati izango ditu antzerkiak. Aginagako kontuetan oinarritu gara, Aginagako sinbolo batean”. Txerrikikoak ezagututa, ikusleen algarak eragingo dituzte ordu erdiz luzatuko den antzezlanaren bitartez.

Gidoia denen artean adostu dute. Urriaren 2an, ludotekan egin behar zuten entseguan, oraindik azken xehetasunak lotzen ari ziren.

San Praixkuak, azken txanpan

Urriak 9, ostirala

Haurren eguna

10:00 Haurren jokoak.

13:00 Umeentzat bazkaria Arrate egoitzan. Bazkalostean, jokoen jarraipena eta sari banaketa.

17:00 Txan magoa. Ondoren, txokolatada denentzat eta buruhandiak.

19:30 “Mendizaleak aurrera...”

Koke Lasa mendizalearen eskutik ikus-entzunezkoa ludotekan.

21:00 Kostillada eliza zaharreen.

23:00 Aloña eta Maitane trikitilarien saioa eliza zaharreen.

Urriak 10, larunbata

16:00 XXIX. Mus Txapelketa herrikoia (izen ematea 15:30ean).

18:00 Buruhandiak.

19:30 Bertso saioa: Amets Arzallus, Iker Zubeldia, Angel Mari Peñagarikano, Iosu Oiartzabal.

24:00 Abiba diskojaia.

Urriak 11, igandea

12:00 Landarbaso abesbatzaren kantaldia elizan.

13:00 Herri poteoa Kuxkuxtu txarangarekin.


14:00 Herri bazkaria.

18:00 Herri antzerkia.

24:00 Tximeleta taldearekin dantzaldia.

Atsedendian, BTK taldearen eskutik batukada.

Ondoren, DJ Büru eliza zaharreen eguna argitu arte.



Urriaren 12an, Euskal Jaia Zubietan

Iaz bezala, goiz partean hasiko da ekitaldi-festa. Datorren astelehenean, umeak pottokekin jolasean ibili ahal izango dira eta helduek, aldiz, errebote partida ikus-entzun-ulertzeko aukera berri bat izango dute. Bazkaldu aurretik, gainera, kantu-giro jatorrean ibiltzeko aukera izango dute.

Haur zein heldu, herri bazkarian bilduko dira Araetan. Eta bazkalostean, Patxi Perez eta Konpainia izango dira erromeria girotuko dutenak.

Aurten, lehen aldiz, bezperan hasiko da Euskal Jaia. Kontzertua iragarri dute urriaren 11 gauerako. Hotzikara, Odolaren Mintzoa, Gaueko Itzalak eta Triki Hots taldeek girotuko dute jai handiaren bezperako gaua.

Zubieta Lantzen elkarteak iaz hasi zen Euskal Jaia berriz ere ospatzen. “Garai batean ospatzen zen baina urte askoan galduta egon da eta berreskuratu nahi izan genuen”, adierazi digute elkartetik. Datari dagokionez, aspaldi iraila partean ospatzen omen zen baina “guk data aukeratzera urriaren 12a ontzat hartu genuen; horrela, jai egun horri euskal kutsua eman nahi izan genion, beste herri askotan egiten den gisara”.



IAZKO EUSKAL JAIA BEZALAXE, AURTEN ERE KANTUAN ARITZEKO AUKERA IZANGO DUTE ZUBIETARREK.

Bezperan hasiko dira ospakizunak

URRIAK 11 IGANDEA

22:30 Kontzertua: Hotzikara, Odolaren Mintzoa, Gaueko Itzalak, Triki Hots.

URRIAK 12 ASTELEHENA

11:00 Errebote exhibizioa eta

joko-arauen azalpena.

11:00 Umeentzako pottokak.

12:30 Kantu-poteoa.

14:00 Herri bazkaria Araetan.

17:30 Patxi Perez eta

Konpainiarekin erromeria.

Bizikleta “desafiyua” prestatzen hasi dira Zubietan

Iaz egin zuten lehen aldiz bizikleta “desafiyua” Zubietan. Hain ondo atera zen, bigarrenaz animatu direla. Urriaren 18an, igande goizez, egingo dute baina honakoan Hernani eta Goizueta arteko ibilbidea osatuko dute. Ondo pasatzea da helburu nagusi eta bakarra.

Iaz bezala, taldeka jokatuko da. “Eta, jakina, izerdia bota edo ez, gero bazkaria egingo dugu”, adierazi digute bizikleta “desafiyuaren” antolatzaileek.

Izena emateko garaia

Hasi dira batzuk animatzen eta izena ematen. Baina orain arte “desafiyuaren” berri izan ez duten zubietarrek ere, izena emateko aukera dute oraindik.

Beraz, lasterketa honetan parte hartu nahi duenak, edota bazkaria joan nahi duenak, Zubieta Lantzenen blogaren bidez izena eman dezake (www.blogak.com/zubietalantzen) edo telefonoz, honako hauei deituz: Eñaut (678 453 148) edo Denis (658 721 427).



IAZKO “DESAFIYUAN”, LASTERKETA AMAIERAKO FESTA.

Pirritx eta Porrotx, Irrien Lagunekin batera frontoian

Jolasean, irria eraginez, lagun asko egin dituzte Pirritx eta Porrotx pailazoek. Mugak gaintitu dituzte, gainera. Lagun senegaldarrak dituzte, lagun kubatarrak... Horiekin guztiakin festa polita egingo dute larunbat honetan, Usurbilgo frontoian, 19:00etatik aurrera.

Udazkena, grabazio garaia izaten da Pirritx eta Porrotx pailazoentzat. Negu, udaberri zein udako egunak alaituko dizkiguten kantua grabatu ohi dituzte urria partean. Aurten ere, hala dabilta, Haritz Harreguy teknikoarekin batera lanean, Andoaingo Garate estudioan.

Disko berria "Irrien Lagunak" izenarekin bataiatu dute. Duela urte batzuk, pailazoei elkartasuna adierazteko kanpainarako, Kaki Arkarazok egindako kantua izena ere bada horixe. Kantu hori ez zegoen inongo diskotan eta lan berrirako berreskuratu dute. Azaro bukaeran plazaratu dute diskoa. Baina larunbat honetan, disko berriko kanturen bat ezagutzeko aukera aparta izango dugu. Besteak beste, Kubako Duo Jaderekin moldatutako bi abesti.

Aiora Zulaika, "Pirritx" pailazoa, gogotsu sumatu dugu telefonoaren bestaldean. Berak azaldu digu pailazoen eta Kubako

bikote honen arteko konexioa. "Iaz, Kuban izan ziren bigarrenez, pailazo taldeko kide batzuk. Duo Jade taldeko kantariak ezagutu zituzten eta harreman berezia sortu zen". Euskal Herrira ekartzeari interesgarria izan zitekeela irudituzitzaie. Egun hauetan, grabazio estudioan izan dira Duo Jade taldekoak. Larunbatean, baina, zuzenean arituko dira kantuan Usurbilgo frontoian.

Aiora Zulaikak Usurbilgo udalaren ahalegina azpimarratu nahi du. "Kubatik hona ekartzeko, instituzio baten eskaera behar zuten Duo Jade taldekoek. Tramitazioak Udalak egin ditu eta horri esker gure diskoan parte hartzeko aukera izan dute". Hemen direla aprobeztatuz, Euskal Herrian hainbat kantaldi eskainiko dituzte.

Hango eta hemengo lagunak

Larunbat honetan, Duo Jadekoek euskarazko kanta bat eta Kubako son doinu bat eskainiko dituzte. Baina ez dira taula gainetik pasako diren bakarrak izango. Oreka Tx taldeko txalapartariak ere frontoian izango dira, baita Maialen Lujanbio eta Unai Muñoa bertsolariak, Labrit eta Oskar Estanga kantariak, Ondarroako Senegaldarrak... Irrien Lagunen festa, bistan denez, mundiala izango da.



Suitzako organo jole baten kontzertua Salbatore parrokian

Datorren astean, urriak 16 Ostirala, Cyrill Schmiedlin organo-jole suitzarrak organo kontzertua eskainiko du Salbatore parrokian. Saioa 20:00etan hasiko da eta sarrera doan izango da.

Sari banaketa



Ainara Saizar Zuloagak 500 Euroko erosketa-txartela irabazi du Otar Goxon egin den zozketan. Bezeroen arteko bigarren zozketa azaroaren 2an egingo da.

Antxetan, mus txapelketa azkarra

Larunbat honetan, urriak 10, Antxeta tabernan Mus Txapelketa Azkarra jokatu da.

Izen-ematea 16:00etan hasiko da; prezioa, 18 euro.

Txapelketa 16:30ean hasiko da, "puntual", adierazi digutenez.



"IRRIEN LAGUNAK" IKUSKIZUNEAN IZANGO DIRA PIRRITX ETA PORROTX PAILAZOAK.

SAIOA LARUNBAT HONETAN IZANGO DA, 19:00ETAN. SARRERA, DOAN.

Kapito Harri Ustaritzeko taldea nagusitu zen Enrike Abril Txapelketako finalean

Ustaritzeko jokalariai kokka bat gorago daude. Hala esan zigun Zubietako taldean jokatzen duen pilotarietako batek. Finaleko emaitza esanguratsua izan zen oso. 13-5 irabazi zuen Ustaritzeko Kapito Harri taldeak. Oiartzun ondo hasi zen baina nahi eta ezin ibili zen azken minutuetan.

Partida, lehen zatian, oso borrokatua izan zen. Oiartzuarrek estu hartu zieten aurre iparraldekoei baina, piskanaka, Ustaritzekoek plazari neurria hartu eta 13-5 emaitzarekin gailentzea lortu zuten.

Ustaritzeko Kapito Harri taldeko Eneko Peletrat izendatu zuten finaleko pilotaririk onena.

Sari banaketan, Enrike Abrilen alabari lore sorta eman zioten antolatzaileek, izan ere, bere aitaren izena darama txapelketak.



KAPITO HARRI TALDEKOAK, SARIAK ESKUETAN DITUZTELA.

Gizon hark, oiartzuarra izatez, lan bikaina egin zuen errebotearan alde. Sariak banatzen, Imanol Azpiroz

Zubietako alkatea eta Xabier Mikel Errekondo Usurbilgo alkatea izan ziren.

Zubietako bi taldeek lan txukuna egin dute aurtengo edizioan

Bukatu da Enrike Abril Errebote Txapelketa. Zubietak lan txukuna egin du aurtengo edizioan. Bi talde aritu dira aurtengo txapelketan eta taldeetako bat finalurreraino iritsi da.

Enrike Abril txapelketan bi ordezkari izan ditu Zubietak. Dena den, final handira iritsi ez badira ere, txapelketa txukuna osatu dute.

Finalaren atarian izan dira

Hauek izan dira bi taldeetan lehian aritu diren jokalariai:

Zubieta 1: Joseba Aizpurua, Josu Aizpurua, Jon Huizi, Kerman Errekondo, Jon Argote, Endika Garzia.

Zubieta 2: Ugaitz Rezola, Mikel Aizpurua, Imanol Aizpurua, Ander Iraola, Gorka Santxez, Anartz Goia.

Zubieta 1 taldea finalurrera iritsi zen. Finala gertu izan zuten aurreko astean, baina Oiartzungo Oiarpe taldeak aurre hartu zuen finalurrean eta gero ezinezkoa izan zen emaitzari buelta ematea. Dena den, Zubietako errebote taldekoak pozik daude egingakoarekin.



ENRIKE ABRILEN ALABAK LORE SORTA BAT JASO ZUEN. ERREBOTEA SUSTATZEN LAN HANDIA EGIN ZUEN BERE AITAK.

**BENTA
TABERNA**
Oilasko erreak
Ogitartekoak
San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

Josue
Igeltseritza:
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea,7
Tif 36 21 64
USURBIL

San Praixkuko trainerila txapelketan ere, Kaiku nagusi

Donostiako Banderarekin nahikoa ez eta Aginagako ere eskuratu dute aurten Sestaoko mutilek. Era honetan, azken urteotan erriean Oriok azaldu duen nagusitasunarekin apurtu dute. Aginagako trainerilak lan ederra osatu eta bigarren izan zen.

Azken orduan, Oriok ezin izan zuen trainerila osatu. Jon Gaztañazpi arraunlaria ezkondu zen egun horretan eta Orioko arraunlari ia gehienak ezkontzara zeuden gonbidatuak. Dena den, parte hartzeko izendatuta zeudenetatik, hiru arraunlari A gripeak jota zeuden eta taldea osatu ezinik izan ziren. Orioren ordez, Koxtape-B izan zen urriaren 3an Aginagan parte hartu zuen taldea.

Hala ere, Orioko elkarteko kideek antolatu zuten estropada-eremua eta hori eskertzeko modukoa da.

Gainera, Aginagako taldea oriotarren trainerila eta arraunekin aritu zen.

Sekulako estropada egin zuten aginagarrek, baina Kontxan irabazle izan diren arraunlariz osatuta zegoen Kaikuren txalupa, eta azkenean, bigarren izan ziren etxeokak. Aipatzekoa da Iñaki Errasti Aginagakoekin lehiatu zela. Hala ere,



AGINAGA ORDEZKATU ZUEN TALDEA. EGUN BATEZ, KAIKU UTZI ETA ETXEKOEKIN ARITU ZEN IÑAKI ERRASTI.

bere taldekide diren kaikutarrak nagusitu ziren.

San Praixku Txapelketa 09

- | | |
|----------------|---------|
| 1. Kaiku | 8:30:32 |
| 2. Aginaga | 8:39:00 |
| 3. Koxtape-A | 8:40:20 |
| 4. Koxtape-B | 8:56:43 |
| 5. San Pedro | 9:05:46 |
| 6. Pasaitarrak | 9:08:90 |
| 7. Zarautz | 9:09:17 |
| 8. Usurbil | 9:17:33 |



KAIKUK ERAMAN ZUEN BANDERA. ESKUBITARA, ERIBERA, JENDEZ GAINEZKA.



Birentzat

afaria Patri jatetxean

Eskubaloi denboraldia hasi da eta Ehorrekin batera, taldea laguntzeko errifak. Denboraldiko lehen zozketan, Mariaje Furundarena izan da irabazlea. Patri jatetxean birentzat afaria tokatu zaio. Usurbil KEko kideek eskerrak eman nahi dizkiete parte-hartzaile denei.



www.noaua.com

USURBILGO ATARIA

Papera jartzea eta
Pinturak orokorrean

**FERNANDO
PINTORAK**



943 366 019

943 363 460

Kale Nagusia 1 · USURBIL

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.

Tel.: 649 435 470

Faxa: 943 372 679

K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

Agenda!**Urriak 10 larunbata**

- Irrien Lagunen kantaldia, 19:00etan
Usurbilgo frontoian.

Urriak 11 igandea

- Kontzertua Zubietan, 22:30etik
aurrera, Hotzikara, Odolaren Mintzoa,
Gaueko Itzalak, Triki Hots.

Urriak 12 astelehena

- Euskal Jaia Zubietan, egun osoz.

Eguneko goardiako farmaziak**Urriak 8, osteguna**

Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Urriak 9, ostirala

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Urriak 10, larunbata

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Urriak 11, igandea

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 12, astelehena

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 13, asteartea

Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Urriak 14, asteazkena

De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Urriak 15, osteguna

Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte

Urriak 16, ostirala

Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Urriak 17, larunbata

De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Urriak 18, igandea

De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

Castilla Farmazia (22:00-09:00),

Urbietakalea, 7 Hernani (943 552 941)

*Usurbilen, soilik eguerdira arte

Zumetaren erakusketa,**Donostiako Ekain galerian**

O! *biotz* erakusketa osatzeko, Arrasateko psikiatrikoko gaixoei idatzitako testuetan oinarritu zen Jose Luis Zumeta. Azaroaren 30a bitartean, Donostiako Ekain galerian aurkituko dituzu serigrafia itxurako margolanak.

Erakusketarekin batera, liburu bat aurkeztu du Zumetak. Aitaren margolanekin, Usoa Zumeta alabak eginiko serigrafiak liburu batean bildu dituzte. Margolanetan zein liburuetan, San Joan Jainkoaren Ospitaleko gaixoen testuak itsatsi dituzte. Liburuaren 150 ale baino ez dituzte argitaratu, zenbaki-tuak denak ere.

80ko hamarkadaren erdialdean izan zuen Zumetak Arrasateko erietxe psikiatrikoko gaixoei idatzitako testuen berri. *Globo Rojo* aldizkarian kaleratzen zituz-



PSIKIATRIKO BATEKO GAIKOEN
IDATZITAN INSPIRATU DA ZUMETA.

ten lanak, eta irakurritakoan, "barruraino" heldu zitzaizkion artistari.

Udan, erakusketa hau Bilboko Arte Ederren enmuseoan izan zen. Baina azaroaren 30a bitarte, Donostiako Ekain galerian izango da ikusgai.

Ekain Arte Lanak
Iñigo Kalea 4, Donostia
www.ekainartelanak.com

**Ipuin kontalaria
Udal Liburutegian**

Ostegun honetan, urriak 8, arratsaldeko 18:00etan, ipuin kontalari bat hurbilduko da Udal Liburutegira. Haur Hezkuntza 4ko haurrei zuzendutako saioa eskainiko du Miriam Mendoza zarauztarrak.

Adin horretan hasten dira lehen ipuin kontaketa saioak entzuten eta horregatik egun berezia izaten da beraientzat. Miriam Mendozak badu eskarmentua ipuin kontaketak eta irakurketak egiten. Ostegun honetan, arratsaldeko 18:00etan, Sutegiko Udal Liburutegian.

**Peter Pan oinarri
duen antzerki saioa**

Datorren astean, urriak 18 igandea, ipuin zoragarri batean oinarritzen den antzezlanak ikusi ahal izango dugu Sutegin.

Mende hasieran idatzi zuen James Matthew Barrie eskoziarrak "Peter Pan" eleberria, eta, berehala, literaturaren klasiko bihurtu zen. Txalo konpainiak istorioaren bertsio berezia taularatuko du datorren astean Sutegin.

Sarrerak NOAUA!n eskura daitezke aldeztu aurretik, euro batean. Egunean bertan eta takilan, 2 eurotan.

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU

© 943 69 68 52 · 620 800 186

LATAILLADE

GASA

BEROKUNTZA

MANTENIMENDUA ETA

KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, beheak · 943 363 348 · 609 888 021

ETXEBIZITZA

- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
 - 95 metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 135.500 euro. 671417240.
 - Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
 - 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailan. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
 - Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
 - Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
 - Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berritua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
 - Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalde, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
 - Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
 - Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
 - Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
 - Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bitote batentzat egokia. 657708866

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Mendiko terrenoak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metroko altuera. Interesatuak deitu 943361265.
- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratu-

- ko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajea, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Astebukeratan lan egiteko, parrilarako pertsona bat eta beste bat zerbitzari moduan aritzeko behar ditugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Usurbilgo emakume bat, herritarra, eskaintzen da gaixoak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Nahi den ordutegia, gaixoein gaua egiteko ere prest. 687348223
- Pertsona helduak zaintzeko neska bat eskaintzen da. Esperientziaduna. 606 800 837.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakume interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620

364 176.

- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantxan aritzeko: 630 438 571.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrek emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkiak, mahaiak, kafe-makina, ontziteria, kaxa erregistratzailea, irabiagailua, zuku-makina, ontzi-garbigailua, harraskak, altzairu herdoiltzinezko gainekoa... 607 389 570 (Mireia). E-posta: istergo@hotmail.com
- Atxegalden 30 metro karratuko lokal bat alokatzen da (lehen Truke denda zena). 943 373 414.
- Informatikoa naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero, deitu: Oskar: 609 46 87 59 / oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitaz galde-tu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925



Urriaren 8an 5 urte,
Zorionak Nerea!
Muxu handi handi bat.
Oihan, Ama eta Aita.



Zorionak Lide!
Urriaren 9an zure urtebetetzea da. Norak eta familia osoak egun zoriontsua opa dizugu.



Zorionak Unai, muxu handi bat Eider eta etxeko guztien partez. Ostiralean da zure urtebetetze eguna eta denak ospatzeko zain egongo gara. Zorionak!



Zorionak poxpolin!
Gure etxeko printzesak lau urte bete ditu urriaren 6an.

JAIOTZAK

Anne Rabano Andres, IX-22.
Unax Larrarte Urdangarin, IX-22.

HILDAKOAK

Pablo Gorriti Camino
88 urterekin, urriaren 2an

Jose Mari Sarasola
64 urterekin, urriaren 3an


izagirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelekttrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

Patri Jatetxea
K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

Auto Guria



Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)
☎ 943 363 298 • Faxa: 943 363 862

I. URRUZOLA AROZTEGIA

**Konfiantzazko arotza nahi baduzu,
etor zaitez gurera**

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea



Oria etorbidea 4, behea, LASARTE
(Errekatxo jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371 200 • 610 413 131

PSU

serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta imprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

Noaualko banatzaile
lan poltsa osatzeko,
banatzaileak behar dira.
Astean bi egunetan edo
bi arratsaldetan lan
egiteko disponibilitatea.



Interesatuak:

pasa Noaualko bulegotik
edo jarri gurekin
harremanetan

943 36 03 21 eikartea@noaua.com

mantangorri rekin



6 DVD
euskaraz

Zinema etxean 4

urriaren **10**etik aurrera
larunbatetan DVD bat

1. Lagundu arraina naiz
2. Heidi 3. berriro mendian
3. Betizu eta Xangaduko misterioa
4. Olentzero eta Subilaren lapurketa
5. Urtemuga festa
6. Prop & Berta



berria

Lau herri eremu mistoan sartzeko prest
daude PSN eta CDN, baina gehiago ez

+ 4,90 €

HARPIDEDUNENTZAT,
BILDUMA OSOA **26 €**
ESKARIA EGITEKO: 943 30 43 45,
harpidetza@berria.info
edo www.berria.info

Babeslea:



ELSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SALA
Housaia Pivimurako Salburuordetza

AUKERA ezazu,
BIZI euskaraz

berria